

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa hazten lagundu nahi dugu, eta horretarako beste enpresa batzuekin aliantzak egitea onuragarria da.

Aliantza bat egingo dugu inmobiliaria batekin, honi "Koopetentzia" deitzen zaio.

Gure enpresa eta inmobiliaria enpresaren artean kompetentzia egongo da, biok etxeak alokatu nahi ditugulako, eta biok bezero berdinak bilatuko ditugulako.



Aliantza estrategikoa egitea erabaki dugu, AteHome inmobiliariarekin.

Inmobiliaria honeki aliantza egitea interesatzen zaigu hainbat arrazoiengatik:

- Bilbon kokatuta dago, gure enpresa dagoen lekua.
- Erreforma eta konstrukzio sailak ditu.
- Inmobiliaria agentzia bat denez, gure proiektua sustatzen lagun dezake, bezeroek gure negozio-aukera ikus dezaten.



AteHome



Live-In

Aliantzarekin lortuko da



(Inmobiliaria)


Gure enpresak inmobiliariarekin batera lan egin ahalko du bezeroak aurkitzeko. Modu horretan, bezeroek gure negozio plana ikusiko dute eta gure alokairuetan interesa hartuko dute. Inmobiliaria gurekin aliantza egitean gure enpresa promozionatuko du.

Inmobiliariak gure irabazien % 20 ** eramango luke. Kontuan hartuta gure negozio-plana gehiengo batean gazteei zuzenduta dagoela, eta kontuan hartuta prezioak nahiko eskuragarriak direla, jende askok izango du alokatzeko interesa, eta urte batzuk gure etxebizitzetan eman nahi izango dituzte; beraz, etekina errentagarria izango da.

** (Gela bakoitzak hilean 450 €-ko etekina ematen badigu gutxi gorabehera, inmobiliariak gela bakoitzeko 90€ eramango lituzke. Hau da, urte batean 1080€ logela bakar batekin).

Etxeko jabearekin aliantza

Etxearen jabearekin 10 urteko kontratu bat sinatuko dugu gure proiektua aurrera ateratzeko. Kontratu horren bidez jabeak etxea 10 urtez utziko digu, etxearekin lan egiteko.



(etxearen jabea)

Etxearen jabearekin sinatzea aukera onena da guretzat. Honela ez dugu gure dirua etxea erosten inbertitu behar, bakarrik etxearen erreforman. Horrela pixkanaka erreforman iraun duguna irabaziko genuke, eta ez litzateke etxea erosi izan bagenu bezainbeste izango.

Hasteko, jabearentzak oso aukera ona litzateke kontratua sinatzea gure irabazien %40a berarantzat izango litzatekeelako. Hortaz aparte,, 10 urte pasata,,hau da, kontratua amaitzean, erreformatutako etxea mantendu ahal izango du.